

ZER EGIN GURE ZARREKIN?

Gaurko gizartean zartzaroak ez dau ezer balio. Ez dauko lekurik. Gauzak lar arin aldatu dira gure inguruan. Ez da denpora asko, gure zarren esperientziak, aholkuak eta jakituriak aipagarriak ziran. Gaur, ostera, ixilduak dira. Zarren eritxiak ez dabe ezertxo be balio. Edozein ume kozkorrek, an eta emen, «h» batzuk ipinten ikasi ondoren, ez dauko lotsarik aititari aurpegira botateko: «ori ez da olan esaten, zuk ez dakizu euskeraz», «gure andereñoak esaten dauku zarrak ez dakiela euskeraz»...

Zartzaroa ain baztertuta dagonez, inok be ez dau inondik inora bere burua zartzat ikusten. Gaztaroa mitifikatzen dan gizartean, gure agureak eta gure atsotxuak barregarrizko modetan sartu dira. Beste asko, ostera, etxetik urteten be ez dira atrebitzen. Ez oneek ez areek ez dabe aintzat euren zartzaroa artzen. Zarrak besteak dira ta ez norbera.

Bizitza latza eta tristea gure zarrena. Familietan sobra dagoz. Oporraldietan seme-alabak ez dakie zer egin guraso zarrekin. Zar-etxeak gaineska ta ospitalak eta klinikak zarrez beteta. Beste asko erdi bakarrik bizi dira euren etxeetan. Noizean bein lobatxoren bat urreratzen jake, eskupekoren billa edo. Udal-etxeetako asistente sozialak asieran berba politikak baina euren postua lortu ondoren, or doaz euren eskubideen atzetik, batean greba ta bestean pankar-

tak astintzen. Bitartean gure zarrak ez etxeko berotasunik ez kanpoko laguntzarik.

Kontsumo gizarte onek, ezertarako balio ez dabezan zarrak geroago eta geiago ugaritzen ditu. Gaur egunean, bein 50 urte bete ezkerro ezin dau lanposturik aurkitu. Ortik datoz ainbat jubilazio aurreratzeak. Gorputzez sasoi onean aurkitzen diranak be, jubila-tu ondoren euren burua ezgauzatzat ikusten dabe. Pertsona barentzat gauzari negargarriena orixe da. Ezertarako ez dabela balio ustea. Sobra dagoa bere burua ustea. Alperrik bizi dala gizartean ustea. Sentimendu orrek sortzen dau biotz barnean olako zapuzketa. Asko ta asko garrastuta bizi dira. Ta baten batzuk euren buruiltea erabagiten dabe.

Zer egin gure zarrekin? Gizartean integratu. Orixe da erantzunik gizakoiena. Beste zoluzioak zarrak gizartetik baztertzerada-roez. Ta ori ez da gizalegea, gitxiago, oraindino, kristau legea. Gure konbentuetan be, Kontzilioa aitzakitza artuta, zelako experientzi lotsagarriak egin diran. Goiko pisuan edo txaletetxuan bost-sei praille gazte eta otz eta itoginez beteriko beko konbentuan beste sei-zazpi praille zar. Olako pausuak emon izan dira, ez dakit zer dala-ta, dinamika, eta sikologi eta soziologi santuen izenean. Baina ori ez da Jesusen Ebanjelioa. Or ez dago kristautasun izpirik be.

Jesusen Jaungoikoa inon agertzen bada, munduko alboratuen eta baztertuen artean agertzen da. Sozial-mailan eta gizon emakumeen biotzetan lekurik ez daukenentzat Jaungoikua notizi on bat da. Gure gizartean zarrak ditugu bastertuak. Orrexeek dira Jaungoikuaren lagunik kutunenak. Besteak baino obeagoak diralako ez dabe artzen Jaungoikuaren aldetik olako tratu berezia. Ez dago beste arrazoi bat besterik: beartsuak diralako, bazertuak diralako. Juangoikuak ez dauko gizon-emakumeak maitatzeko modu bat besterik: bere laguntza emotea, maitasuna eta zuzentasuna ukatzen jakeezan pertsonen.

A. Olea